

2. KIROLJOKOAREN ETXEAREN AURKAKO APUSTUEN ARAUTEGIA

ETXEAREN AURKAKO apustuak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k eskaini eta erabiltzaile apustulariak onartzen dituen apustuak dira. Jaso beharreko saria apustu egindako kopurua sistemak aurrez emandako apustu koefizientea edo momioarekin biderkatzeak ematen du.

1. Kapituluak: ETXEAREN AURKAKO APUSTU MOTAK

Etxearen aurkako apustuak honakoak izan daitezke:

- SOILA: Pronostiko bakarrari apustu eginda.
- ANITZA: Lehia bati edo gehiagori buruzko bi pronostiko edo gehiagoren alde apustu eginda.

Apustu ANITZAK, era berean, honakoak izan daitezke:

- PILATUAK: Bi edo pronostiko gehiagoren aldeko apustu anitza da eta apustu irabazlea izateko pronostiko guztiak asmatzea beharrezkoa da. Ad. BIKOITZA: Bi pronostiko ezberdinekin pilatutako apustu anitza. HIRUKOITZA: Hiru pronostiko ezberdinekin pilatutako apustu anitza. MULTI: Lau pronostiko ezberdin edo gehiagorekin pilatutako apustu anitza. Apustu mota honek apustulariak egindako pronostiko kopurua azalduko du: Multi 4, 4 pronostikorekin egindakoa, Multi 5, 5 pronostikorekin egindakoa, e.a.
- KONBINATUAK: Pronostiko guztiak asmatuak ez egon arren apustu irabazleak egon daitezkeen hiru pronostiko edo gehiagorekin pilatutako apustua. Apustu modalitate honetan saritutzat soilik asmatutako pronostiko gehien eta, beraz, sari handiena duen konbinazioa hartzen da kontuan.

2. Kapitulua: ETXEAREN AURKAKO APUSTUEN GAUZATZEA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n etxearen aurkako apustuen gauzatzea apustu egin nahi den lehia aukeratuta eta sistemak proposatzen duen kuota onartuta egiten da. Apustu egin nahi den zenbatekoa sartzen da eta, behin balioztatua, sistemak apustuaren ordain-agiria jaulkitzen du.

Tele Apostuak-ek apustu koefizienteak edo momioak bere irizpideen arabera aldatu ditzake, baina behin erabiltzaile batek apustu bat gauzatuta, apustu horretarako ezingo da kuota aldatu.

Etxearen aurkako apustuen gauzatzea lehia hasi aurretik edota jokoan denean (***Zuzeneko Apustuak***) egin daiteke. "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k zuzenean soilik etxearen aurkako apustu soilak gauzatuko ditu.

3. Kapitulua: ETXEAREN AURKAKO APUSTUETAKO MUGAK

Etxearen aurkako apustu bakoitzeko gehienezko kopurua ezin da 100 euro baino handiagoa izan, ez eta euro 1 baino baxuagoa.